

IRIS ETA NASHEN DESOREKA

«*Nashen oreka*» esaten zaio jokoan teoriako oreka nozioaren definizio ezagunenetako bati. John Nash matematikariaren lanek lehen bezain ezezagun jarraituko dute *A Beautiful Mind* filma ikusi ondoren ere. Desoreka mentala, eskizofrenia, izango da hemendik aurrera akademiatik kanpo Nashen izenari lotuko zaiona. 1994an Nashekin batera Ekonomia Nobel Saria jaso zuten beste biak (Harsanyi eta Selten) existitu ere ez dira egiten, film horren arabera. Izan ere, zaila izan behar du zine biografikoa egitea, batez ere pertsonaiaren obrak filmaren banda sonoro ederra osatzeko balio ez duenean. Nashen obra pantailaratzea oso zaila dela onartuta, bere bizitzari buruzkoek trataera hobea merezi zuten: adimen jenialaren eta gaixoaren arteko muga lausoak, 1950, 60 eta 70etako psikiatrikoen praktikak eta unibertsitate erakundeetatik jasotako bazterketa ez dira, nire ustez, behar beste indarrez tratatu. Hollywoodi, sobrare, ezin zaio gehiago eskatu. Ez dakit John Nashek berak zer iritziko dion.

Laster Iris Murdoch Oxfordeko filosofo eta idazlearen bizitzan oinarritutako filma ikusi ahal izango dugu. Kasu honetan ere haren obra filosofiko eta literarioa (26 nobela) ezagutzeko aukerarik ez dugu izango. Eta Iris Murdochen izena, bere produkzio nobelistiko ugari eta aberatsari baino, azken urteetan bizi izan zuen alzhemerrari lotua gera daiteke. John Bayley senarrak idatzitako bi biografietan (*Elegy for Iris*, *Iris and her friends*) oinarritzen omen da filma. Baina ez dugu sekula jakingo Irisek berak zer iritziko liokeen. Hilda D. Spear irakasleak Iris Murdochen eleberriei buruzko liburua eman zuen argitara 1995ean, eta *For Iris and John with love, & with thanks to Iris for many hours of reading pleasure, 31 July 1995* sinatu zuen haiei oparitutako alean. Ordurako Iris alzhemerra nozitzen hasia zen. Ez zuen, nolana ere, oparia asko estimatu. Bi urte eskas geroago nik erosi nuen Oxfordeko *Walton* kaleko bigarren eskuko liburuen denda batean.